

Azkenak... lehenak Jainkoarentzat

21. saioa

ZEHAZPENAK

Saio honetan, Jainkoak munduarentzat zuen ametsa ezagutuko dugu, hau da, Jesusek iragartzen duen Jainkoaren Erreinua eta, bertan, ahulenak, txikiak, lehenak direla konturatuko gara. Guk, gurasook, gure seme eta alabak zaintzen ditugun samurtasun eta maitasunarekin zaintzen ditu Jainkoak gure gizarteko azkenak eta gutariko bakoitzarentzat ere lehenak izan daitezela eskatzen digu.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Jainkoaren Erreinuaren iragarpena gizadiarentzako Berri On bezala aitortu
- Erreinuaren iragarpena elkarlanean aritzeko dei pertsonaltzat hartu
- Jainkoaren ametsean, azkenak lehenak direla antzeman
- Azkenen aldeko konpromisozko gertuko esperientziaren bat ezagutu

Haurrak:

- Hainbat lagunek, triste, bakarrik, gaixo... delako, laguntza behar duela ikusi
- Jainko Aitak, azkenak "aparteko maitasunez" zaintzen dituela aitortu
- Guztiok behar gaituen norbait zain dezakegula ikusi

GARAPENA¹

Saioari hasiera eman aurretik, partaideei harrera egin eta agurtu egingo ditugu. Ondoren, helduak eta haurrak bi taldetan banatu.

HELDUAK

Helduentzat prest izango ditugu munduaren egoera islatzen duten argazkiak, egunkari-, aldizkari-txatalak, e.a.

¹ Eragileak Iruña, Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek prestatutako *Familian. Erljio esnatzea 0-6 urtekoentzat*, argitalpeneko *Lehen hitzak* liburukiko 46-48 orrialdeetan jasotzen den "Beste baliabide batzuk" atalean Jainkoaren Erreinuari buruz esaten dena irakur dezake.

Galdera hau egingo diegu: "Nolakoa da gure seme eta alabak jaio diren mundua?". Argazkiak, albisteak, e.a., hartu eta denen artean murala osatuko dute, bizi garen munduaren errealitatea agertzera emanaz. Astia eman horretarako.

Murala amaitu ondoren, galdera hauen inguruan jardungo dugu: Munduaren zein irudi agertzen da? Zer nabarmentzen da? Baliteke agertu den gauza asko eta asko negatiboa izatea (indarkeria, desberdintasuna, bidegabekeria...). Hau ote da gure seme-alabentzat nahi dugun, amesten dugun mundua?

Nolakoa da, orduan, amesten dugun mundu hori? Denok nahi dugu bizitza osoagoa, zoriontsuagoa, gizatiaragoa. Denok irrikatzen dugu mundu zuzen eta anaikorragoa. Baina eguneroko esperientziak erakusten digunez, hori oso zaila da. Pertsona mugatuak gara, hainbat gorabehera, kontraesan, etsipen, apurketa,... dago gure bizitzan. Bizi garen inguru sozial, kultural eta ekonomikoetan, dinamiken, hartu-emanen oinarrian ez daude beti senidetasuna, zuzentasuna eta berdintasuna.

Zer diosku guzti honek? Nola "uzten" gaitu?

Errealitateak, gure irrikarik sakonenak, gure seme-alabentzat amesten dugun mundua, ezinezkoa dela ikusarazi nahi digula ematen du. Baina, hala ere, Jesusek Ebanjelioan egiten duen iragarpena, itxaropenez beterikoa da. Zuzentasun eta senidetasunezko mundua eraiki daitekeela iragartzen du Jesusek hasieratik bere predikuan. Jainkoaren Erreinua hots egiten du:

Jesus Galileara etorri zen eta Jainkoaren berri ona hots egiten zuen. Honela zioen: "Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinetsi berri ona"(Markos 1, 14-15).

Jainkoaren bizitza osoa, bere hitz, keinu eta ekintzak, gizakiekin duen hartu-emana, gizakiak hartzeko era, den-dena, Jainkoaren Erreinuaren iragarpen da. Nolakoa da, orduan, Jesusek Jainkoaren izenean hots egiten duen Erreinu hori? Ebanjelioan jasotzen diren Jesusen hitz eta keinuetan arreta jarritz ezagutuko dugu.

"Erreinuaren esanahia Ebanjelioan" agiria banatuko diegu taldekide guztiei. Hauek talde txikietan banatuko ditugu (partaideen kopuruaren arabera), eta talde bakoitzari Ebanjelioko bizpahiru txatal emango diogu, irakurri eta Jainkoaren Erreinuaren ezaugarriak nabarmen ditzaten. Talde guztietan txatalak irakurri eta horien inguruan elkarrizketan jardun ondoren, batera jarriko dugu landutakoa, denon artean ondorengo galderei erantzuten saiatuz:

- Nolakoa da Jainkoak gizadiarentzat amesten duen mundua, Jesusek iragartzen duen Erreinua?
- Nortzuk dira iragarpen horren hartzaile nagusiak?
- Zein durundi du niregan "azkenak, lehenak" "Jainkoaren logikak"?
- Eta gure munduan, gure gizartean... nortzuk dira, gaur, azkenak? Nola has daitezke "lehen" izaten?

Saio honi amaiera emateko (edo jarraipena, beharbada beren-beregi horretarako jarritako saioan egitea komeni delako), arrazoiren batengatik "azkenen"² taldeztat hartutako gizatalderen batek bizi dituen zailtasunei aurre egiteko kristau elkartearen egitasmoren bat zuzenean ezagutuko dugu. Egitasmoan esku-hartzen duen boluntarioren bat joan daiteke taldearen saiora, lekukotasuna ematera: zer egiten duten, norekin, nola, zergatik laguntzen duen egitasmo horretan, zer esan nahi duen beretzat azkenak lehen izateak... Ahal izanez gero, egokia litzateke jarduera non garatzen duen zuzenean bisitatzea eta, ahal den neurrian, jardueran parte hartzea. Hainbat adibide:

- Caritasek Pastoral Barrutian garatzen dituen egitasmoetako bat bisitatu: harrera-gunea, haurrentzako egitasmoa, nagusien taldea,...
- Pastoral Barrutiko osasun pastoraltzan edo nagusien pastoraltzan diharduten pertsonak ezagutu.
- Nagusien egoitzaren bat bisitatu.
- E.a.

HAURRAK

"Egoera zailak" irudikatzen dituzten marrazkiak izango ditugu prest haurrentzat: haurra negarrez, pertsona gaixoa, edadetua, ezindua, kale gorrian bizi dena... Marrazkiak margotzeko esango diegu eta, amaitzean, zera galdetuko: Gustatu zaizkizue marrazkiak? Zer gertatzen zaie pertsona hauei?

Nolako marrazkiak dituzue gustuko? Eta Aita Jainkoak? Zer aldatu beharko genuke marrazkietan politagoak izan daitezen?

Gure aitek eta amek ardura eta samurtasun handiz zaintzen gaituzte eta zerbait dugunean (gaixorik, triste gaudenean edo zerbait gaizki ateratzen zaigunean), maitasun hori are eta bereziagoa da. Gauza bera gertatzen da Aita Jainkoarekin: denok maite gaitu, baina aparteko maitasuna die gaizki edo zailtasunetan daudenei.

Eta guk, zain dezakegu norbait? Nori erakuts diezaiokegu aparteko maitasuna, benetan horren beharrean delako? Norekin jolas gaitzke gehiago, pozago egon dadin? Anai-arreba txikia, triste dagoen ikaskidea, besarkada ematen diegunean poztu egiten den aitona edo amona...

Amaitzeko, bakoitzak marrazki bat egingo du, Jainkoak nahi duen mundua eta gure arteko hartu-emana irudikatuz: elkarri lagundu, besarkatu... (Lagungarrien atalean badaude marrazki batzuk margotzeko. Haur txikienekin erabil daitezke, marrazteko gauza ez direnekin...):

² Saioa antolatzen bada bisitaldia egiteko eta haurrak eramatea egokituz jotzen ez bada, hauek *Joseph ametsen erregea (Joseph, king of dreams, 200)* pelikula ikus dezakete.

AZKEN UNEA, ELKARREKIN

Saioari amaiera emateko, handi eta txiki elkartu egingo gara. Txikiek beren marrazkiak erakutsiko dizkieten nagusiei, Jainkoak nahi duen mundua ezagutu dutela eta hori egia bihurtzeko zein bide hartu behar dugun azalduz..

Amaitzeko "Jesus, ez duzu eskurik" otoitza egingo dugu.

ETXEAN – FAMILIAN JARRAITZEKO

Saioan aurrera egiteko, dagoeneko helduek irakurri dituzten Ebanjelioko txatalak txikiei egokitutako bertsioan irakurriko ditugu eta elkarrizketan jardungo dugu Jainkoak nahi duen munduaren eta hori egia bihurtzeko bideen inguruan.

Ebanjelioko hiru txatalen moldaketa eskaintzen dugu lagungarrietan³:

- *Ideia bikaina* (Elbarriaren sendaketa: Markos 2, 1-13). Jainkoak ez du inork zailtasunik izaterik nahi, eta horregatik, gaixoak edo, zerbaitengatik baztertuta daudenak babestuta eta lagunduta senti daitezela nahi du, beren zailtasun horiek gaindi ditzaten.
- *Gizontxo iruzurgile ziztrina* (Zakeo: Lukas 19, 1-10). Nahiz eta norbaitek zintzo ez jokatu eta besteak ondo ez tratatu, Jainkoak barkatu egiten dio eta berriz ere denen adiskide izatea nahi du.
- *Inoiz ospatu den festarik onena* (Bankete handia: Lukas 14, 15-24). Jainkoaren Erreinua jai edo bankete handi baten antzekoa da eta denok gaude gonbidatuta, inor ez da kanpoan geratzen.

³ "Tu primera Biblia" Alexander, P.ren liburutik hartuta. Edebe Arg., 1997.